



2014KO ABENDUAREN 16KO 333. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: Barrundiako udalerrria 13 herrik osatzen dutela (Audikana, Dallo, Elgea, Etura, Etxabarri Urtupiña, Gebara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrintzar, Maturana, Mendixur, Ozaeta), eta bere hedadura 97,5 kilometro karratukoa dela.

Herrietako bakoitzak Administrazio Batzorde bat osatzen du eta herritargoa guztiz sakabanatua da lurraldean.

GERTUA IZANIK: Udaleko hainbat zerbitzu betetzeko (jakinerazpenak, mandatuak, kultur iharduerak, kirol iharduerak, materiala garraiatzea, e.a.) guztiz beharrezkoa dela ibilgailu bat erostea.

GERTUA IZANIK: Merkatua arakatu ondoren eta udalerrriaren ezaugarriak abiapuntu, bidezkoena, ibilgailu elektrikoa erostea dela, horrela berotegi efektuaren kontrako neurria hartuko litzateke (21 Agenda).

GERTUA IZANIK: Ibilgailu elektrikoetan aditua den GAURSA AUTOAK S.L.U. merkataritza-etxeari aurrekontua eskatu zaiola.

GERTUA IZANIK: GAURSA AUTOAK S.L.U merkataritza-etxeak bere aurrekontua aurkeztu duela, beronen zenbatekoa 14.991,23 € (Bez barne).

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen 9. artikulua araberak, hornidura-kontratua da objektutzat duena produktu edo ondasun higigarriak finantza-errentamenduan hartzea, errentan hartzea-erosteko aukerarekin zein gabe- edo eskuratzea.

KONTUAN HARTUZ: Lehen aipatutako Testu Bateratuaren 111 artikulua araberak, Lege horren 138.3 artikuluan zehaztutako kontratu txikietan, espedienteak gastua onartzea eta dagokion faktura espedienteari gehitzea besterik ez du behar.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koa, 138. artikulua araberak, kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak izango dira, baldin eta obra-kontratuak badira, eta 18.000 eurotik beherakoak, bestelako kontratuak badira.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 120.623.030 diru-izendapena dagoela.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen 139. artikulua araberak, kontratazio-organoek berdintasunez tratatuko dituzte lizitatuak eta hautagaiak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun-printzipioaren arabera jardungo dute.

ZERA ERABAKITZEN DUT



LEHENA.- Goian aipatutako hornidura egitasmoa onartzea.

BIGARRENA.- GAURSA AUTOAK S.L.U. merkataritza-etxeari udaleko zerbitzuentat ibilgailu elektriko baten hornikuntza egitasmoa esleitzea.

Esleipena 14.991,23 €tako zenbatekoan finkatzen da.

HIRUGARRENA.- Hornikuntza, gehienez, jota, egutegiko hamar egunetako epean burutu beharko da, beti ere, honako jakinerazpen hau jasotzen den biharamunetik hasita.

LAUGARRENA.- Honako erabaki hau GAURSA AUTOAK S.L.U. merkataritza etxeari jakineraztea, halaber Kontuhartzaitzari.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede eman dut.

ALKATEAK,

Afro Olabe Mtnéz. de Albeniz



IDAZKARIAK,

Jon Txopitea Zugadi